

Espedientearen kodea: 2025ZZ020011

Espedientearen gaia: 2024-2025 ikasturtean Oiertzungo ikastetxeek edo guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko ekintzak gauzatzeko dirulaguntzak banatzea.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

DEKRETUA

2022ko ekainaren 29an onartu zituen Udalbatzak “Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzak”, 2022ko irailaren 20an argitaratu zirenak GAOn.

Oiertzungo Udalak ekainaren 25ean onartu zituen “2024-2025 ikasturtean Oiertzungo ikastetxe edo guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko ekintzak sustatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak”. Hauen xedea, 2024-2025 ikasturtean, Oiertzungo ikastetxe edo guraso elkarteek antolatzen dituzten hezkuntza arautuz kanpoko ekintzetarako, norgehiagoka prozeduraren bidez, diru laguntzak banatzeko Oiertzungo Udalaren diru laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea izanik.

Elizaldekoak Guraso Elkarteak eta Haurtzaro Ikastolak dirulaguntza eskatu dute erregistroan antolatu dituzten ekintzengatik

Kultura Zerbitzuko arduradunak irailak 15ean gai honi buruz luzatu duen txostena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan honakoa

ERABAKI DUT

Lehena.- 2024-2025 ikasturtean Oiertzungo ikastetxe edo guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko ekintzak sustatzeko dirulaguntzak honela banatzea eta ordaintzea, dirulaguntza hauek onartuz eskatzaile bakoitzerako:

	Eskolorduz kanpokoak	Ikastetxe Eguna
Haurtzaro Ikastola	4803,39 €	1354,84 €
Elizalde Eskola	3796,61 €	1445,16 €

Bigarrena.- Diru laguntza hauek esleitzeko, guztira, 11.400 € ordainketak egitea onartzea, Oiertzungo Udalaren 2025 urteko aurrekontuko aurrekontuko 1 0311.481.326.00.01.2025 eta 1 0312.481.326.00.01.2025 zenbakidun partiden kontura. (A- 1799-2025 eta A-1800-2025).

Hirugarrena.- Dirulaguntza hauetako oinarriek ezarri bezala, lehen ordainketa, onartutako kopuruen % 80ari dagokiona, orain ordaintzea erabaki hau hartzearekin batera.

	Eskolorduz kanpokoak Orain ordaindu	Ikastetxe Eguna Orain ordaindu
Haurtzaro Ikastola	3842,71 €	1083,87 €
Elizalde Eskola	3037,29 €	1156,13 €



Laugarrena.- Azken ordainketa, onartutako kopuruen gainerako % 20ari dagokiona, interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordainduko da. Interesatuei gastuen justifikazioa azaroak 30a baino lehen aurkeztu behar dutela gogoraraztea.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



EKS | CSV: ESKUcffd18fc-c342-441f-8a0f-744e9a47d44d

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025ZZ020011-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)